

Iraunkortasun Plana 2017

Itxiera Txostena



Iraunkortasunari buruz daukagun ikuspegia eta plan honen prestakuntza	2
● Etika eta gardentasuna	5
● Pertsonak	10
● Operazio segurua	17
● Baliabideen eta eraginen kudeaketa	19
● Aldaketa klimatikoa	25
● Berrikuntza eta teknologia	27
Plan hau eguneratzeko prozesua	29

Lege-oharra

Iraunkortasun Plan honek zenbait ekintza jasotzen ditu, osorik edo partzialki, legeak eskatzen duenaz harago doazenak eta garapen iraunkorrean laguntzera bideratuta daudenak. Repsol Taldeko enpresa parte-hartzaileek horiek guztiak betetzeko eta egikaritzeko asmo irmoa dute. Hala eta guztiz ere, horien betearazpena aldatzeko, atzeratzeko edo deuseztatzeko ahalmena gordetzen dute horrek lege-erantzukizunik eragin gabe, gerta daitezkeen kasu horiek publikoki justifikatzeko konpromisoa hartzen duten arren.

© PETRONOR, S.A. 2017. Eskubide guztiak gordeta daude. Dokumentu hau Petronor, S.A.rena da soilik eta hori osorik edo partzialki erreproduzitzea baimentzen da merkataritzazko helbururik gabe hedatzeko.

Iraunkortasunari buruz daukagun ikuspegia eta plan honen prestakuntza


Garapen iraunkorra, gaur egun Nazio Batuek 2030 Agendan eta horren 17 Helburu Globaletan sartutakoa, eragile politikoek, sozialek eta ekonomikoek partekatutako erantzukizun bat da eta, horretarako, ekintza irmoa behar da.

Petronorren, garapen iraunkorrean laguntzen dugu; izan ere, funtsezko energiaren eskaera gero eta handiagoa da eta gu hori asetzen saiatzen gara, pertsonen funtsezko eskubideak gauzatu ahal izateko. Horrez gain, balioa sortzen dugu epe laburrera eta luzera. Gizartean eta ingurumenean dauden eragin positiboak maximizatzen ditugu eta eragin negatiboak txikiagotzen ditugu, gure balio-katean zehar, jarrera etiko eta garden baten bidez. Horretarako, indarreko araudia bete ez ezik, nazioarteko estandar nagusiak ere bete nahi ditugu.

Premisa horiekin, 2010ean, konpainiak iraunkortasun-eredu bat hartu zuen; eredu horrek gogoeta etikoak, ingurumenekoak eta sozialak hartzen ditu barne erabakiak hartzeko prozesuan, interes-taldeen elkarriketatik abiatuz. Ariketa hori errepikatzen dugu urtero, formalki eta sistematikoki txertatuz kezka horiek erabakiak hartzeko prozesuetan eta urteko ekintza-plan publikoetan islatuz, hau da, Iraunkortasun Planetan.

Urteetan zehar, kanpoko ikasketako eta barneko aldaketa kultureko prozesu baliotsu honi esker, iraunkortasuneko eredu bilakatu eta indartu ahal izan da, gairik esanguratsuenetan oinarrituta. Horrela, gure antolakuntzaren norabidea definitu dugu, garapen iraunkorrean kontribuzio eraginkorragoa egiteko.

Ikasketa hori islatuz, oraingo eredu lehentasunezko sei ardatzetan oinarritzen da, epe luzera iraunkortasunarekin lotutako helburuak eta urteko ekintza-lerroak definitzen dituztenak: ardatz horiek honako gai hauek ingurukoak dira eta gure Iraunkortasun Planak egituratzen dituzte:



Petronorren 2017ko Iraunkortasun Planak lehentasunezko 20 ekintza jasotzen ditu. Ekintza horiek konpainiaren kanpoko zein barneko interes-taldeek 2014an egindako tokiko eta eskualdeko azterlanaren bidez identifikatutako gai sentiberekin eta itxaropenekin daude lotuta. Hala, lehenetsitako ekintzak honako itxaropen hauekin identifikatzen dira:

- Hornitzaileen trakzioa eta enpleguaren sorkuntza.
- Enplegua eta jarduera sortzen dituzten beste produkzio-sektore batzuk sustatzea eta babestea.
- Erantzunkidetasuna erakundeen zein elkarten ekimen soziokulturelekin.
- Operazio-jarduera iraunkortasun eta gardentasun irizpideekin.

Ekintzak ardatz hauen barruan sartzen dira: Etika eta gardentasuna; Pertsonak; Operazio segurua; Baliabideen eta eraginen kudeaketa; Aldaketa klimatikoa eta Berrikuntza eta teknologia. Ekintza gehienak Pertsonak (6) eta Baliabideen eta eraginen kudeaketa (6) ardatzean sartzen dira.

Plan honetan sartutako ekintzen %65 Repsol Taldean lan egiten duten pertsonen ordainsari aldakorreko sistemarekin lotuta daude; horrek erakusten du konpainiak konpromiso nabaria daukala garapen iraunkorrean egiten duen kontribuzioa eraginkortasunez maximizatzeko.



GARAPEN IRAGUNKORRERAKO HELBURUAK

17 HELBURU GURE MUNDUA ALDATZEKO

Plan hau osatzen duten ekintzek Nazio Batuen Garapenerako 2030 Agenda babesten laguntzen dute, Garapen Iraunkorreko Helburu (GIH) hauei heltzean:



4. GIH. Kalitatezko hezkuntza. Plan honek inguruaren eta gure langileen eskumen teknikoak eta profesionalak areagotzea sustatzen du (4. Helburua).



5. GIH. Genero-berdintasuna. Petronorrek emakumezkoen parte-hartze osoa eta eraginkorra zaintzen du, baita lidergoko aukera-berdintasuna ere (5. Helburua).



6. GIH. Ur garbia eta saneamendua. Helburu honetan egindako kontribuzioa ur-baliabideen erabilera eraginkorra handitzean oinarritzen da (4. Helburua).



8. GIH. Lan egokia eta hazkunde ekonomikoa. Plan honek produktibitate ekonomikoa hobetzeraz bideratutako zenbait ekimen jasotzen ditu, modernizazio teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez (2. Helburua); produkzio-jarduerak babestera eta enpresa txiki eta ertainen hazkundera sustatzera bideratutako ekimenak (3. Helburua) eta lan-inguru seguru eta babestua sustatzera bideratutakoak ere bai (8. Helburua).



9. GIH. Industria, berrikuntza eta azpiegitura. Plan honetan garbiak eta ingurumenari dagokionez arrazionalak diren teknologia eta prozesuen ezarpena sustatzeko ekimenak jasotzen dira (4. Helburua).



10. GIH. Desberdintasunen murrizketa. Petronorrek gizarteratzea eta inklusio ekonomikoa sustatu nahi ditu inguruan (2. Helburua).



12. GIH. Produkzio eta kontsumo erantzuleak. Plan honetan deskribatzen diren proiektu batzuek azpimarratzen dute atmosferara, lurzorura eta uretara askatzen diren produktu eta soberakinak murriztu behar direla (4. Helburua); hondakinen sorkuntza murriztu (5. Helburua) eta jardunbide iraunkorrak ezarri (6. Helburua).



13. GIH. Klimaren aldeko ekintza. Iraunkortasun Plan honek helburu honekiko egiten duen ekarpena kontsumo energetikoaren eta CO₂-ko igorpenen murrizketan gauzatzen da.



16. GIH. Bakea, justizia eta erakundeak. Plan honetan, etikarekin, erantzukizunarekin eta gardentasunarekin lotutako ekintzak jasotzen dira (5. eta 6. Helburuak), baita erabaki inklusibo eta parte-hartzaileak hartzearekin lotutakoak ere (7. Helburua).

1. programa

Etika eta gardentasuna

Zuzentasunez jarduten dugu gure taldea dagoen herrialde guztietan. Gure jokabide etikoak ez du soilik legearen betearazpen zorrotza barne hartzen, baizik eta horren izaera ere bai.

Ardatz honetan, konpainiak Repsol Taldeko langile guztientzat eta hornitzaileentzat, kontratistentzat eta enpresa kolaboratzaileentzat zuzentasunezko eta erantzukizunezko kultura bat sustatzen eta bultzatzen duela bermatzen duten ekintzen multzoa ezartzen dugu.

Gainera, gardentasuna eta kontu-ematea definitzen ditugu iraunkortasun-ereduaren elementu bereizgarri gisa. Sinesgarria izateko, funtsezkoa da gardena izatea modu jarraituan.

Iraunkortasun Plan honetan, zenbait ekintza ezarri dira konpainiak arlo honetan bere buruari proposatutako erronkak lortzen laguntzeko, baita alde interesdunen itxaropen nagusiei erantzuteko ere.

EKINTZA

Programatutako geldiketan egindako ekintzak jakinaraztea, konplexuaren kanpoan egon daitezkeen eraginak saihesteko.

DESKRIBAPENA

Geldiketan zehar kanpoaldean aurreikusten diren eraginak aztertuko ditugu eta egindako ekintzen berri emango diegu auzokideei eta erakundeei.

ADIERAZLEA

Identifikatutako ekintzen kopurua.

2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA

EGOERA

Egina

IXTE TESTUA

Garbiketa kimikoetarako eta unitateetako kutsadura garbitzeko zerbitzuak kontratatu ditugu Kokerrean, Destilazioan zein Hutsean, eta odorizatzaileak jarri ditugu. Kanpoko komunikazioak egin ditugu tokiko instituzioentzat eta Abanto-Zierbenako, Muskizko eta Zierbenako udalerrietako biztanleentzat. Era berean, zenbait aldiz ere batzartu gara aholkulari-talde publikoekin eta udal-elkarteekin.

EKINTZA

Sistematika eraginkor bat garatzea, Petronorren hornitzaileen eta kontratisten fakturak kobratzeko epea murriztera eramaten duena.

DESKRIBAPENA

Onespenerako fluxu elektronikoa bat aktibatuko dugu fakturak ordaintzeko, prozesuaren trazabilitate osoa lortzeko eta inguruko hornitzaileei ordaintzeko epeak egokitzeko beti ekonomiaren inguruko legean jasotakora.

ADIERAZLEA

Aplikazioa produkzioan jartzea.

2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA

EGOERA

Egina

IXTE TESTUA

Aplikazioa sortu dugu, ekoizpenean dago eta ondo baino hobeto dabil. Hori dela eta, %13 murriztu da kobratzeko aldia.

EKINTZA

Inguruko biztanleen kezkak ebaluatzea eta informaziorako eta parte-hartzerako bide bat sortzea.

DESKRIBAPENA

Aztertuko ditugu, Panel Publiko Aholkulari bakoitzaren bidez, interes-taldeen itxaropenak eta pertzepzioa. Horrela, Iraunkortasun Planetako ekintzen eraginaren segimendua egingo dugu, dagokion azterlan soziologikoa egiten den arte.

ADIERAZLEA

Lau saio egitea Panel Publiko Aholkulari bakoitzean.

2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA

EGOERA

Egina

IXTE TESTUA

Aholkulari-talde publikoen lau saioak egin ditugu aurreikuspenen arabera. Horrez gain, azterketa soziologikoa egin dugu Repsoleko Komunikazio Sailarekin, instituzioen eta inguruko bizilagunen aurreikuspenak eta iritzia ebaluatzeko.

EKINTZA

Iraunkortasunean burututako jardueraren segimendua egitea eta hornitzaileen eta kontratisten erantzukizun soziala sustatzea.

DESKRIBAPENA

Erantzukizun sozialeko irizpideak haztatuko ditugu zerbitzuak kontratatzeko lizitazioetan. Era berean, erantzukizun sozialeko alderdiak aztertuko ditugu enpresa kontratistak kalifikatzeko prozesuetan.

ADIERAZLEA

- Gutxienez haztatzeko 16 matrize erabiltzea erantzukizun sozialeko irizpideekin.
- Sei kalifikazio egitea gutxienez erantzukizun sozialeko alderdiak aztertuz.

2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA**EGOERA**

Egina

IXTE TESTUA

Haztapan-matrizeak egin ditugu > 300.000 €-ko lizitazio guztietan. Bertan, hain zuzen ere, hornitzaileen gizarte-erantzukizun korporatiboko faktoreak haztatzen dira, eta Sail Industrialeko Hornitzaileen Kudeaketarako Arauan ezarri dira, gainerako findegietan ere ezarri daitezkeen arren. Bederatzi enpresa kalifikatu ditugu.

2. programa

Pertsonak

Gure langileak, erkidegoak, gure merkataritza-harremanak eta gure bezeroak ezinbesteko ardatz bat dira gure iraunkortasun-ereduan.

Jakin badakigu Repsol Taldea osatzen duten pertsonak direla gure lehiaketa-abantaila nagusia, baita konpainia iraunkor bat izateko giltzarria ere. Gure profesionalen taldea anitza eta aditua da eta konprometituta dago. Aukera-berdintasunaren alde egiten dugu, gaitasun desberdinak dituzten pertsonen integrazioaren alde, kultura-aniztasunaren alde, bizitza profesional eta pertsonalaren arteko orekaren alde, prestakuntzaren eta garapenaren alde eta erakapenaren eta adimenaren atxikipenaren alde.

Enpresa-jarduera gero eta zorrotzagoa den eta informazio gehiago duen inguru sozial batean burutzen da; hala, konpainiak tokiko erkidegoekin harreman irmoak ezartzen saiatzen gara, printzipio hauetan oinarritutakoak: errespetua; sentsibilitate kulturala; zuzentasuna; erantzukizuna; gardentasuna; fede ona eta diskriminaziorik eza. Repsol Taldean, elkarri eragiten diegun eragile desberdinekin harreman iraunkorrak eta konfiantzazkoak eraikitzeke lan egiten dugu, bereziki gure operazioekiko gertu dauden erkidegoekin.

Konpromisoa hartzen dugu giza-eskubideak errespetatzen jarraitzeko; horrek esan nahi du saihestu behar dugula gure jarduerak eta erabakiek ondorio negatiboak eragitea horiek burutzen diren inguruko pertsonengan eta, ondoriorik egotekotan, ahal den guztia egitea sortutako kaltea konpontzeko.

Iraunkortasun Plan honetan, honako ekintza hauek ezarri dira, Repsol Taldeak iraunkortasuneko ardatz honetan dituen lan-ildoekin bat etorritz:

EKINTZA**Tokiko enplegua eta industria mantentzen laguntzea.****DESKRIBAPENA**

Tokiko enplegugarritasunean lagunduko dugu Somorrostro Irakasgunearekin batera garatutako aplikazioa erabiliz, enplegu-eskatzailleak enpresa kontratisten eskaintzekin lerrotuz. Tokiko industria-sarea mantentzen lagunduko dugu hornitzaileen trakzio-plana sustatuz.

ADIERAZLEA

- Enpresa kontratistetan gutxienez 60 pertsona kontratatzea garatutako aplikazioaren bidez.
- Trakzio-planeko sei proiektu abiaraztea gutxienez.

2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA**EGOERA**

Egina

IXTE TESTUA

98 lagunen kontratazioa kudeatu dugu zerbitzu industrialetako enpresa hornitzaileentzat, baina, batez ere, antolatutako geldialdietan eta oporretan. Bestetik, Erakartzeko Planeko 6 proiektu jarri ditugu abian.

EKINTZA

Hedatutako prestakuntza dualeko proiektua koordinatzea.

DESKRIBAPENA

Lanbide Heziketa Dualaren garapenean hartuko dugu parte, gure instalazioetan praktiken alorra erraztuz eta beharrezko profesionalak hornituz.

ADIERAZLEA

Gutxienez 18 ikaslek egitea ikastaroa.

2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA

EGOERA

Egina

IXTE TESTUA

Petronorreko ikastaro teoriko praktikoak egiten hasi gara bi espezialitatetako 18 ikaslerekin (mekanika eta instrumentazioa), eta, horretarako, 4 enpresa hornitzaileekin batera lan egin dugu. Inbertsio elkartua 80.000 €-koa izan da.

EKINTZA

Beste produkzio-sektore batzuk babestea, nagusiki lehenengo sektorea.

DESKRIBAPENA

Lehenengo sektorera bideratutako baliabideak hornituko ditugu, hori garatzeko eta finkatzeko, sektoreko erakunde-lankidetzaren eta aholkularitzaren bidez.

ADIERAZLEA

- Itsaslur-Pobeña Fundazioa eratzea.
- Itsaslur Plan Berezia onestea.

2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA**EGOERA**

Egina

IXTE TESTUA

Errentamenduei eutsi diegu lehen sektorean diharduten maizterrekin. Bizkaiko Foru Aldundiak sektoreko sindikatuekin onartutako prezio publikoen antzekoa da haien balioa.

EKINTZA

Boluntariotzako ekimenak babestea erkidegoaren onurarako.

DESKRIBAPENA

Petronorren inguruko udalerrietan ezarritako boluntariotzako ekimenetan lagunduko dugu, horiek tokiko erkidegoen onurarako eta horien ekimena dela-eta egiten badira.

ADIERAZLEA

Babestutako boluntariotzako jardueren kopurua.

2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA

EGOERA

Egina

IXTE TESTUA

Finantzaketa eta laguntza-baliabideak eman ditugu borondatezko laneko zenbait jardueratarako. Euren artean, honako hauek nabarmentzen dira: Muskizko Herri Babeserako jarduera eta Mello Saria antolatzen duten boluntarioen taldeko lasterketa solidarioa.

EKINTZA

Produkzioko operadore berrien prestakuntza sustatzea.

DESKRIBAPENA

Operadore berrien prestakuntza sustatuko dugu Produkzioko Sailerako, etorkizuneko behar berriak aurreikusiz. Horrela, enplegua sortzen eta gaitasunak garatzen lagunduko dugu.

ADIERAZLEA

- Prestakuntza egiten duten pertsonen kopurua.
- Petronorrek Produkzioko Sailean kontratatutako pertsonen kopurua, behin horien prestakuntza amaituta.

2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA

EGOERA

Jardunean

IXTE TESTUA

Lantegi kimikoko operadoreentzako ikastaro berria egiten hasi gara 20 lagunekin.

EKINTZA

Berdintasun Planeko ekintzak sustatzea.

DESKRIBAPENA

Berdintasun Planeko ekintzak abiaraziko ditugu identifikatutako arlo bakoitzean.

ADIERAZLEA

Berdintasun Planeko hiru ekintza ezartzea gutxienez.

2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA

EGOERA

Egina

IXTE TESTUA

6 ekintza egin ditugu. Ekimen horien bidez, honako arlo hauetan esku hartu dugu: Prestakuntza, Hautaketa, Arriskuen Prebentzioa, Uztarketa, Jazarpen Sexuala eta sexuagatikoa.

3. programa

Operazio segurua

Zero Istripu egotearen helburua lortu nahi dugu eta, horretarako, segurtasun maila altua eskatzen dugu gure prozesu eta instalazioetan, arreta berezia jarriz pertsonen babesean eta inguruan.

Beharrezkoa da arreta jartzea segurtasun pertsonalean eta gure prozesuen segurtasunean, aurrerapeneko ekintza multzo batekin, arriskuak kontrolatzen laguntzen digutenak, horrela istripu industrial handiak saihesteko.

Neurri zorrotzak aplikatzen ditugu gure instalazioen diseinuan eta mantentze-lanetan; arriskuen azterketak egiten ditugu aldizka nazioarteko jardunbiderik onenak jarraituz; larrialdien aurrean ematen dugun erantzuna eraginkortasunez kudeatzen dugu eta gure langileen trebakuntza egokia bermatzen dugu, segurtasuneko kultura bikaina indartuz.

Hala ere, segurtasunaz ari garenean, ez gara soilik gure instalazioez ari, baizik eta merkataritza-harremanak ditugun hornitzaile eta kontratisten sentsibilizazioaz ere. Segurtasuneko oinarritzko 10 arauak ezarri ditugu eta antolakuntza osoari, langileei eta kontratistei helarazi dizkiegu; hori egin dugu gure hornikuntza-kateak eska daitezkeen segurtasuneko estandarrak betetzen dituela bermatzeko.

Batzorde Betearazle Korporatiboak urtero onesten ditu iraunkortasuneko helburuak; horien barruan sartzen da segurtasuna, hain zuzen ere, %10 eta %20 bitarteko pisuarekin. Hala, horrek eragin zuzena dauka ordainsari aldakorra duten langileengan.

Jarraian, segurtasunarekiko dugun konpromisoa islatzen duten eta Zero Istripu egotearen helburua lortzen lagunduko diguten ekintzak jasotzen ditugu.

EKINTZA

Segurtasuneko baterako jardueretan parte-hartzea inguruko beste negozio-unitate batzuetako zentroekin eta Bizkaiko Foru Aldundiko suhiltzaileekin.

DESKRIBAPENA

Baterako jarduerak egingo ditugu Bizkaiko Foru Aldundiko suhiltzaile-taldeekin, findegiko instalazioetan eta suhiltzaileen instalazioetan (bilerak prestakuntza teorikoarekin, bisita, instalazioen ezagutza eta simulakroak). Gainera, Santurtziko GLP-rekin aldizkako bilerak egiten jarraituko dugu, non larrialdietan batera jarduteko protokoloa garatuko dugun.

ADIERAZLEA

- Baterako protokolo bat eratzea GLP-rekin.
- Suhiltzaileekin egindako ekintzen ehunekoa (bilerak, bisitak, simulakroak).

2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA

EGOERA

Egina

IXTE TESTUA

Butanoko Lantegiarekin batzartu gara maiatzean, eta, aztertutako egoeraren ondoren, eskabidea egin dugu, Petronorreko balbulen etxolan aspertsoreen, langarreztagailuen, barreia-gailuen... sistema jartzeko. Aurreikuspenen arabera, protokoloa 2017ko martxoarako egongo da amaituta.

Azaroaren 17an, Bizkaiko Foru Aldundiko Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuarekin, eta, ondoren, azaroaren 30ean Petronorren egin genuen simulakroan parte hartu zuen.

4. programa

Baliabideen eta eraginen kudeaketa

Repsol Taldean, gizartearen kezkarekin bat egiten dugu, hau da, beharrezkoa dela bizi garen ingurunea zaintzea. Saiatzen gara gure operazioetan eraginik txikiena sortzen, honako hauen bidez: igorpen gutxiko estrategia; uraren kudeaketan optimizatzea; isuriak zama kutsatzailearen murrizketa; hondakinen kudeaketa zuzena; isuriak prebenitzeko eta horiei erantzuteko sistemak hobetzea eta biodibertsitatea funtsezko elementutzat hartzea.

Operazioetan erabiltzen ditugun baliabideen erabilera eraginkorra egiteko konpromisoa hartu genuen, baita horien erabilera zirkularra sustatzeko ere. 2016an, erronka berri bat onartu dugu: Ekonomia Zirkularreko aukerak bilatzea, lankidetzako ekonomia sustatzen dutenak, erauzi, erabili eta botatzeko ekonomia lineala ordeztzeko aukera bat izan daitezen.

Iraunkortasun Plan honetan, Repsol Taldeak iraunkortasuneko ardatz honetan dituen lan-ildoekin bat datozen ekintzak ezarri ditugu.

EKINTZA	Ingurutik jasotako eta ingurumenarekin lotutako iradokizunak edo kexak kontuan hartzea.
DESKRIBAPENA	Konpainiak ekintza mota hauetarako ezarritako protokoloa kontuan hartuz, kanpotik jasotako eta auzokideek antzematen dituzten egoeren inguruko kexa edo dei guztiak hartuko ditugu, horien inguruko informazioa behar dutenean. Jatorria identifikatzen saiatuko gara, kexaren arrazoiketa errepikatzea saihesteko.
ADIERAZLEA	Hartutako eskaeren ehunekoa.
2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA	
ESTADO	Egina
TEXTO DE CIERRE	Ingurukoek ingurumenaren arloan bidali dizkiguten iradokizun edo kexa guztiak (%100) artatu ditugu.

EKINTZA	Hondakinen maparen eraketatik eratorritako azterlanarekin jarraitzea.
DESKRIBAPENA	Segurtasun eta Ingurumeneko Zuzendaritzaren aholkularitzak aurkeztutako proposamenak aurkeztuko ditugu, bidezkoa bada, findegian horiek ezartzeko.
ADIERAZLEA	Urtero aztertutako proposamenen ehunekoa.
2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Segurtasun eta Ingurumen Zuzendaritzako aholkulariek aurkeztutako 4 proposamenak (%100) aztertu ditugu, eta behar besteko ekintzak garatzen ari gara, bideragarriak diren eta findegian erabili ahal izango diren jakiteko. Aztergai ditugun proposamenek sufre kutsatuaren eta ikatz aktiboaren sorrera murriztea dute helburu, baita ontzi hutsen kudeaketa eta tangak garbitzean sortutako lohien tratamendua hobetzea ere.

EKINTZA	Konposatu organiko lurrunkorrak murriztea tanga-ontzien zaman.
DESKRIBAPENA	Hobekuntza Tekniko Eskuragarrien (MTD) ezarpena garatuko dugu ingurumen-babesari dagokionez, 2018ko urrian indarrean sartuko den 2014/738/UE erabakiaren arabera.
ADIERAZLEA	Proiektuaren aurrerapena.
2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA	
EGOERA	Jardunean
IXTE TESTUA	2017an, eskuragarri dauden teknika onenen artean aukeratu dugu itsas terminaleko konposatu organiko hegazkorrak berreskuratze teknologia. Era berean, proiektuko xehetasun-ingeniaritza egiten eta kasuan kasuko ekipamenduak erosten ere hasi gara.

EKINTZA	Konplexu industrialaren ura kudeatzeko mapa eratzea.
DESKRIBAPENA	<p>Ura kudeatzeko mapa bat garatuko dugu fingailu-jardueretarako, egoera diagnostikatu ahal izateko eta balizko arriskuak aztertzeko. Hobetzeko esfortzuak honetara bideratuko ditugu:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Europar Batasuneko araudi-aldaketetara egokitzera, erreferentzia onenak bezala identifikatutako teknologiak aplikatuz, Bref de Refino eta CWW. Izan ere, zentro batzuetan, horiek hobetzeko tresnak izan daitezke muga berrietara egokitze aldera.2. Uraren erabilera. Hartutako ura eta berzikulatutakoa.
ADIERAZLEA	Identifikatutako erabilera-adierazle guztiak helaraztea (besteak beste, hartutako ura, berrerabilitako ura, erabilerak, etab.) Emisphere aplikaziora.
2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Antzemandako erabilera-adierazle guztiak, hartutako edo berrerabilitako ura, esaterako, eraman ditugu garatutako Emisphere aplikaziora, konpainiaren ingurumen-informazioaren fidagarritasuna eta koherentzia bermatzeko.

EKINTZA	Ingurumen-bektoreetan eta zarata eta usainen murrizketan eragin positiboa duten inbertsio-proiektuak identifikatzea.
DESKRIBAPENA	Ingurumen-inbertsioak aztertuko ditugu, eragin positiboak bilatzera bideratutako lehenespen-irizpideekin, zarata eta usainen murrizketaz gain.
ADIERAZLEA	Berrikusten diren eta urtero ixten diren inbertsioen ehunekoa.
2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Inbertsio-prozesua amaitu duten proiektu guztiak [%100] aztertu ditugu, ingurumen-gehigarritasuna dutenak antzemateko, hau da, garapen jasagarria, ingurumenaren artapena zein hobekuntza eta energia-iturrien ustiapen eraginkorrena sustatzen dituztenak.

EKINTZA	Baliabide hidrikoak erantzukizunez erabiltzea.
DESKRIBAPENA	Bideragarritasuneko bi proiektu garatuko ditugu, ura hartzeko eta horri erabilera industrialia emateko. Horrela, giza-kontsumora bideratutako ura erabiltzea saihestuko dugu.
ADIERAZLEA	Oraingo saretik kontsumitutako uraren murrizketa.
2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA	
EGOERA	Jardunean
IXTE TESTUA	Lurpeko ura hartzeko proiektuan lan egin dugu. Zundaketa-azterketa egin dugu, ur-putzuak non lekuratuko diren zehazteko. Egindako zundaketak azaltzen dituen txostena aurkeztu dugu.

5. programa

Aldaketa klimatikoa

Repsol Taldeak bat egiten du giza-jarduerak klimaren gainean izaten ari den ondorioaren eta horrek beroketa globalean duen eraginaren inguruko kezkaekin.

Gure erronka energia modu seguru, eraginkor eta irisgarrian hornitzea da, berotegi-efektuko gasen igorpenak murriztuz gure instalazioetan. Horretarako, gure instalazio eta jardueretan energia eraginkortasunez erabiltzeko konpromisoa hartu dugu gure gain, baliabide naturalak babesteko, igorpen atmosferikoak murrizteko eta aldaketa klimatikoaren ondorioak arintzen laguntzeko. Zentzu horretan, energia kudeatzeko sistemak ditugu, gure instalazioetan ISO 50.001 nazioarteko estandarra aplikatuz eta konpainiaren barruan kontsumo energetikoa eta berotegi-efektuko gasen igorpenak murrizteko planen bidez. Izan ere, oraingo planarekin, 2020rako, urteko CO₂-ko 5 milioi tonako murrizketara helduko gara, 2005etik aurrera egindako murrizketa-ekintzak kontuan hartuz. 2005. Plan horien barruan, eraginkortasun energetikoa motor nagusia da, teknologian eta prozesu eta operazioen berrikuntzan oinarrituta.

Horrez gain, gizarteak berotegi-efektuko gasen igorpen gutxi dauden etorkizun iraunkorraz goza dezan ahalbidetzen duten konponbideak bilatzen ari gara. Energia-iturri guztiak dira garrantzitsuak mix energetikoan; hala ere, gas naturala bultzatzen dugu konponbiderik eraginkorrena bezala, igorpen baxuko etorkizun baterako trantsizio egituratua sustatzeko, bereziki, sorkuntza elektrikoan. Energia berriztagarriek eginkizun nabarmena izango dute, horien heldutasun teknologikoak lehiakorrak izatea ahalbidetzen direnean. Era berean, epe ertain-luzera, karbonoaren harrapaketa, erabilera eta biltegiatzea funtsezko teknologia bat izango da Pariseko Akordioaren helburuak lortze aldera.

Gure konpromisoaren adibide gisa, Repsol Taldea *Oil and Gas Climate Initiative* izeneko ekimenera atxikita dago, *Oil&Gas* sektoreko beste bederatzi konpainiarekin koalizioan. Hori guztia, jardunbiderik onenak eta konponbide teknologikoak partekatze aldera, baita aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan egindako inbertsioak areagotze aldera ere. Horrela, OGCI *Climate Investment* inbertsio-funtsa sortu da; horrek 1.000 milioi dolar inbertituko ditu hurrengo 10 urteetan berotegi-efektuko gasen igorpenak murrizten laguntzen duten teknologien garapena finantzatzeko.

Jarraian, ardatz honekin lotutako Iraunkortasun Planeko ekintzak jasotzen ditugu.

EKINTZA

Eraginkortasun energetikoko ISO 50.001 araua ezartzea.

DESKRIBAPENA

Eraginkortasun energetikoko ISO 50.001 araua ezartzeko jarduerak burutuko ditugu, kontsumo energetikoa murrizte aldera eta, horrela, berotegi-efektuko gasen igorpena murrizteko. Arau horretan bertan eskatzen diren alderdiak hedatuko ditugu, horien ezarpena ukitutako jarduera eta prozesuetan islatu arte.

ADIERAZLEA

50.001 ziurtagiria lortzea.

2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA

EGOERA

Jardunean

IXTE TESTUA

Talde Sustatzailea prestatu eta ISO 50.001 Arauko arduradunak zehaztu ditugu, arauaren diagnostikorako eta ezarpenarako sistematika aztertzeke.

EKINTZA

CO₂-ko igorpenak murriztea.

DESKRIBAPENA

CO₂-ko igorpenak murrizten jarraituko dugu, inguruko ekosistema hobetzeko.

ADIERAZLEA

Murriztutako CO₂-ko tonak.

2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA

EGOERA

Jardunean

IXTE TESTUA

Gutxi gorabehera, 77.483 tona CO₂ murriztu ditugu, guztira 84.440 tona CO₂ aurreikusita zeudenean.

6. programa

Berrikuntza eta teknologia

Etorkizuna iraunkorra izateko, beharrezkoa da konpainiek zientzian eta teknologian inbertitzea, oraingo eta etorkizuneko erronka energetikorako konponbide errealekin laguntzeko.

Uste dugu berrikuntza teknologikoa sistema energetiko eraginkorragoak eta inguruarekiko iraunkorragoak eraikitzeke elementu bat dela. Repsol Taldean, unibertsitateekin eta ikerketa-zentroekin sareko lankidetzaren alde egiten dugu, energiaren eremuan handinahi handiko ideiak abiaraztea sustatuz, horiek aurre egin behar diegun erronkei erantzuten laguntzeko eta horrela etorkizun iraunkorra eraikitzeke, ingurumenarekiko konpromisoa hartuz.

Iraunkortasun Plan honetan ekimen hauek jasotzen dira.

EKINTZA

Zientzia eta Teknologiaiko Euskal Sarearekin elkarlanean aritzea, eraginkortasun energetikora eta segurtasunera bideratutako teknologiak garatu eta aplikatzeko.

DESKRIBAPENA

Zientzia eta Teknologiaiko Euskal Sarearekin batera, garatu eta berrituko dugu, bai produkzio-prozesuetan, bai mantentze-lanen prozesuetan. Horrela, ekimen eta aplikazio teknologiko berriak ezarriko ditugu. Esperientzia horietatik abiatuz, *start-up* berriak sor daitezke, enpresa-ekimen berriak sustatuko dituztenak.

ADIERAZLEA

Gutxienez, lau ekimen aplikatzea produktu eta zerbitzu berriekin.

2017/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA

EGOERA

Egina

IXTE TESTUA

Hiru tresna berritzaile garatu ditugu Tecnaliarekin batera. Honako hauexek dira:

- BEGIPLAN: sute-sorguneen detekzio goiztiarra ekoizpen-lantegietan eta tangen parkean.
- PROGNOS: iragarpen-sistema, FCC unitateko algoritmoak eta eragiketa-datuak aztertzeko (cracking katalitiko fluidizatua).
- ERALDI: datuen kudeaketa, Petrolio Gordinaren 1. Unitateko eragiketa modelizatzen.

Plan hau eguneratzeko prozesua

Iraunkortasun Plan hau dokumentu dinamiko bat da.

Urtero, plan honetan jasotako ekintzen lorpen-mailaren inguruko kontuak emango ditugu, itxierako txosten bat argitaratuz.

Bestalde, alderdi interesdunentzat kezkarriak diren itxaropenak edo gaiak aldatzen direnez eta urtean zehar gertatzen diren gauzen araberakoak direnez, plan hau urtero eguneratuko da ekintza berriekin edo indarrekoak birformulatuz, egoera berrira egokitzeko.

Planaren ondorengo eguneraketekin, betetako zenbait ekintza utziko dira atzean; horiek, batera, gure konpainiak garapen iraunkorrari dagokionez egindako kontribuzioa osatzen dute.

Ekintzen aurkibidea

Lege-oharra	1
Iraunkortasunari buruz daukagun ikuspegia eta plan honen prestakuntza	2
Garapen Iraunkorrerako Helburuak	4
1. programa: Etika eta gardentasuna	5
Programatutako geldiketan egindako ekintzak jakinaraztea, konplexuaren kanpoan egon daitezkeen eraginak saihesteko.	6
Sistematika eraginkor bat garatzea, Petronorren hornitzaileen eta kontratisten fakturak kobratzeko epea murriztera eramaten duena.	7
Inguruko biztanleen kezkek ebaluatzea eta informaziorako eta parte-hartzerako bide bat sortzea.	8
Iraunkortasunean burututako jardueraren segimendua egitea eta hornitzaileen eta kontratisten erantzukizun soziala sustatzea.	9
2. programa: Pertsonak	10
Tokiko enplegua eta industria mantentzen laguntzea.	11
Hedatutako prestakuntza dualeko proiektua koordinatzea.	12
Beste produkzio-sektore batzuk babestea, nagusiki lehenengo sektorea.	13
Boluntariotzako ekimenak babestea erkidegoaren onurarako.	14
Produkzioko operadore berrien prestakuntza sustatzea.	15
Berdintasun Planeko ekintzak sustatzea.	16

3. programa: Operazio segurua	17
Segurtasuneko baterako jardueretan parte-hartzea inguruko beste negozio-unitate batzuetako zentroekin eta Bizkaiko Foru Aldundiko suhiltzaileekin.	18
4. programa: Baliabideen eta eraginen kudeaketa	19
Ingurutik jasotako eta ingurumenarekin lotutako iradokizunak edo kexak kontuan hartzea.	19
Hondakinen maparen eraketatik eratorritako azterlanarekin jarraitzea.	20
Konposatu organiko lurrunkorrak murriztea tanga-ontzien zaman.	21
Konplexu industrialaren ura kudeatzeko mapa eratzea.	22
Ingurumen-bektoreetan eta zarata eta usainen murrizketan eragin positiboa duten inbertsio-proiektuak identifikatzea.	23
Baliabide hidrikoak erantzukizunez erabiltzea.	24
5. programa: Aldaketa klimatikoa	25
Eraginkortasun energetikoko ISO 50.001 araua ezartzea.	26
CO ₂ -ko igorpenak murriztea.	26
6. programa: Berrikuntza eta teknologia	27
Zientzia eta Teknologiako Euskal Sarearekin elkarlanean aritzea, eraginkortasun energetikora eta segurtasunera bideratutako teknologiak garatu eta aplikatzeko.	28
Plan hau eguneratzeko prozesua	29
Ekintzen aurkibidea	30

www.petronor.eu

